Sartu gure Webean!: www.stee-eilas.org

INFORRIA 2014-15 03

STEE-EILASeko informazio orria –Araututako Irakaskuntza Pribatua urriak 30

AKORDIOAREN BATZORDE PAREKIDEAREN BILERA

Auzitegi Gorenak aurreko urriaren 10ean sinatutako transakzio akordioa onartzea zain gaudela, bertan aurreikusten den Batzorde Parekidea lehengoz bilduko da datorren azaroaren 12an, goizeko 12etan KRISTAU ESKOLAren Donostiako egoitzan. Hau izango da bileraren gai-ordena

1.- Batzorde Parekidea osatzea

2.- Akordio abiatzeko alderdi praktikoak

3.- *Enplegurako eta lanpostuak berriro kolokatzeko egonkortasuna* atalari dagokion akordioaren garapena

4.- Euskarako itzulpenaren onartzea

Batzorde parekide osatuko duen sindikatuen aldea 6 kidek osatuko dute: ELAko 2 kide eta STEE-EILAS, CCOO, LAB eta UGT kide bana. Patronalaren aldeko kideak bileran beran ezagutuko dugu.

Dagoeneko jasotzen ari gara akordioren interpretazioaz zalantzak. Hauetariko asko garrantzitsuak ez izan arren azaroaren 12ko bileran argituko dira. Baina badaude garrantzitsuagoak direnak eta ikastetxe batzuetan zuzendaritzek modu partzialean interpretatu dituztenak. Dituzuen zalantza guztiak helarazi ahal dizkiguzue bilera izan baino lehen, Batzordean azaltzeko eta bertan erabakitzen dena loteslea izan dadin ikastetxe guztientzat.

STEE-EILASek ***Enplegurako eta lanpostuak berriro kolokatzeko egonkortasuna*** atalaren garapena bultzatuko du; batik bat berariazko araudia egiteko eta administrazioaren inplikazioa lortzeko.

LEP 2014-15

Zenbait komunikabideen bidez jakin izan duzuenez Hezkuntza Sailak adierazi due datorren udarako LEP bat egingo duela Madrilgo Gobernuak ahalbidetzen duen jubilatzen direnen lanpostuen zati bat (2014an %10 eta 2015ean %50) betetzeko. Orain arte bestelako berririk ez dugu , baina argi daukagu ez dugula itxaropen handirik izan behar lanpostu horiek betetzeak ez dakarrelako lanpostu berririk sortzea (ugariak diren behin behinekoak finko bihurtzen dira bakarrik) eta zehaztuko den lanpostu kopurua ez delako nahikoa izango sistemaren beharrizanak betetzeko.

STEE-EILASek laguntza emateko prest dago aurkezteko asmoa duzuenei. Aurrekoetan bezala informazio jaso nahi duten pertsona-zerrenda osatzen ari gara. Halaber, beharrezko materiala lortzeko eta unitate didaktikoak egiteko beharrezko aholkularitza emateko prest izango gara (berariazko hitzaldiak...). Interesik izanez gero, jarri zaitezte harremanetan herrialde bakoitzeko egoitzekin.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☏ 945 14 11 04	🖷 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☏ 944 10 02 98	🖷 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☏ 943 46 60 00	🖷 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Joaquin Beunza 4-6 behea	31014 Iruñea	☏ 948 21 23 55	🖷 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org